

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea 2026ko OHZren zenbait errolda fiskali

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkateak,

Hau jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko ekainaren 18ko erabaki bidez hartutako eta 2026ko uztailaren 10eko ALHAOn (78. zenbakia) argitaratutako erabakien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igarota, ez dela erreklamaziorik aurkeztu, eta erabaki horiek behin betiko bihurtu direla. Hori guztia argitara ematen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan xedatutako ondorioetarako. Artikulu hori 2026ko ekitaldiari dagozkion honako zerga errolda hauen behin-behineko onespinari buruzkoa da:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga (2026/2011 espedientea).
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga (2026/2011 espedientea).
- Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga (2026/2012 espedientea).

2026ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, gorago aipatutako errolden ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituzten zergadunek udaletxeko kutxazain automatikoan eta euskal administrazioaren ordainketa-pasabidean ordaindu ahal izango dituzte tributu hau. Horretarako, udalaren web-orrira jo beharko dute (<http://amurrio.eus/es>), "Nire Ordainketa" aukeran.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko bide exekutibo administratiiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko erreklargua aplikatuko zaio, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabiltketarako Araudi Orokorrak. Errekargu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2026ko abuztuaren 4a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA